



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2025eko azaroaren 27a

LEKUA: Batzar gela

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

IDAZKARIA: Pablo Echart San Sebastian

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan



Idiazabalgo Udala

1.- Aurreko aktak onartzea, hala badagokio.

Aho batez onartzen da 2025ko urriak 30ko akta.

2.- Dekretuen berri ematea

Idazkariak Dekretuak zeintzuk izan diren azaldu ondoren, ez dago galderarik.

3.- Faktura zerrenden berri ematea

Ez da ezer komentatzen bidalitako fakturei buruz.

4.- 2026eko aurrekontua, plantilla organikoa eta langileen zerrendak onartzea, hala badagokio.

Ogasuneko batzordean esplikatu zen aurrekontu zirriborroa, sarrera eta irteerak denera 4.951.218,58 euro izango dira. Aldaketa bat egon da, ur zundaketen kanona 24.000 euro gehiagoko gastua izango da Izan ere, 2023, 2024 eta 2025ko 22 herriko ur zundaketen aprobetxamenduko kanona ordaintzeko dago Ur Agentziari. Aurten 2022koa ordainduko da

Aho batez onartzen da 2026ko aurrekontuen proposamena.

.5.- 2026ko langileen zerrendako bi garbitzaile postuen euskara derrigorrezko maila ezartzea, hala badagokio..

Falta diren bi garbitzaileen derrigorrezko euskara hizkuntza eskakizuna onartzen da, maila baxuena 1 maila, besteak bezala.

Iñaki Arriaranek dio hurrengo urtean begiratu daitekeela hizkuntza eskakizun maila altuago ezartzea, garbitzaile batek 2 euskara maila duelako.

6.- Azaroak 25ko adierazpen instituzionala onartzea hala badagokio, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazterako Nazioarteko eguna.

Aho batez onartzen da adierazpen instituzionala.

7.- Azaroak 20ko OinHerriren manifestua, Haurtzaroaren nazioarteko eguna aldeko adierazpen instituzionala onartzea, hala badagokio.

Aho batez onartzen da adierazpen instituzionala.



Idiazabalgo
Udala

8.- 2025ean Immigrazioaren eta Kultur-arteko Bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka demografikoaren Sailaren eta honako baten artean EAEKO Idiazabalgo Udala, hitzarmena onartzea, hala badagokio.

Dirulaguntzak kobratzeko hitzarmen bat da aniztasunaren aldeko ekintzak sustatzea da helburu. Ogasuneko batzordean komentatutako mugikorreko aplikazioaren kostua, ACV app-a herritar guztientzat izango dena, diru laguntza hauek finantzatzeko dute.

Aho batez onartzen da hitzarmena.

9.- Abenduak 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna 2025 adierazpen instituzionala onartzea, hala badagokio.

Aho batez onartzen da adierazpen instituzionala.

Iñaki Arriaranek animatzen du mintzalagunetan parte hartzea.

10.- Galderak eta eskaerak.

Eusko Jaurlaritzako Denis Itxasorekin bilera bat eskatu da hurrengo asterako. Alkateak jakinarazten du lurzorua lagapena egin ezker Eusko Jaurlaritzak interesa agertuko lukeela gaia aztertzeko. Alokairu sozialetako etxebizitzak herri handietan egiten dira eta Idiazabal bezalako herri txiki bat promoziorako interesgarria litzateke.

Iñaki Arriaranek dio alokairuko etxeak edukitzeko errenta mugatu bat behar da unitate familiarren errentaren arabera edo desgaitasun maila jakin bat, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituela betebeharrak, adibidez etxearen jabetza ez edukitzea.

Horretaz gain, alkateak komentatzen du Torre etxearekin zer egin Eusko Jaurlaritzak Nekazaritza Sailburu Ordearekin elkartzekoa dela. Eusko Jaurlaritzak 4 edo 5 milioiko inbertsioa aurreikusten du DO, artzai gazta eta Museoa bertara eramateko. Proiektuan estrategia bateratu bat markatu behar da eragile guztien artean: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, Udala, DOrekin batera. Asmoa da DO, artzai gazta eta museoa dena eraikin batean jartzea.

Gainera, udalari ondo etorriko zaio oraingo bi lokalak hutsik geratuko



Idiazabalgo
Udala

liratekeelako beste erabilera batzuetarako.

Zepaiko partehartzeko Plan Partzialean 2 proposamen berri aurkeztu dira partehartze prozesutik. Adierazpen orokorra VPoko etxeak urruti daudela da. Beraz, hauek kontutan hartuta, 4 aukera berri aurkezteko eskatu zaio egiten ari den taldeari.

Ikei, etxebizitzaren azterketa egin zutenekin bilera bat egin da. Zepaiko Konbentuari beste erabilera bat ematea, proiektu garrantzitsu bat da herriarentzat. Eraikin oso handia da, gastu asko aurreikusten dira, baina edozein udal zerbitzu emateko planteatu daiteke, beti ere patxadaz epe luzerako: zahar egoitza, eguneko zentroa, adibidez. Hurrengo astean eraikina begiratzera joango dira bere egoera ikustera lehenik.

Hainbat zahar egoitzen eredu aurreratu komentatzen dira, dauzkan aukerak nabarmenduz.

Eta beste ezer esateko ez dagoela, bilera 18:42etan bukatu da.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA